

Zein usain dute oroitzapenek?

Maddi Etxeberria Otaegi

Zein usain dute orotzapenek?

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra

(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;

91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko ekainean

Azaleko irudia:

Iván Landa

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Maddi Etxeberria Otaegi

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-322-0

L. G.: SS-533/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Zein usain dute oroitzapenek?

Maddi Etxeberria Otaegi

erein

2017ko abuztuaren 21a, astelehena

Kaixo, Helen:

Zaila egiten zait. Zaila, honen guztiaren ostean, aldaketa hauen guztien ostean, zuri zuzentzea.

Zer moduz? Gaur nire lehen eguna zen ikasgelan eta oso urduri esnatu naiz, iratzargailuak jo baino ordubete lehenago. Leioha ireki eta eguzkiaren lehen errainuek masaila laztandu didatenean, pozik jarri naiz, ordea. Badakizu hemen eguraldi ona gutxitan egiten duela!

Ikasleekin ondo joan da. Hogeita bi gaztez osatutako talde bat daukat, hamasei urtekoak, eta egunean ordu eta erdi eman behar diet, gaztelania. Bai, nork eta nik, gaztelania! Zeinek esango zidan niri... Horrez gain, laguntzako irakasle erabiliko nautela uste dut, kontatuko dizut!

Aurrekoan esan nizun bezala, Anderrek ez dit seinalerik eman. Badakizu ondo agurtu ginela eta, egia esanda, haur jarrera erabatekoa iruditzen zait bere aldetik; orain arte bizitutakoa bizitu ostean... Ez dakit, nahiko nahastuta nago. Beno, egia esan, Anderrek beti nahastu izan nau, badakizu... Kar, kar, kar!

Bitza hemen nahiko aspergarria da, orain behintzat. Oraindik ez dut lagunik egin... Baina, beno, gaur pare bat lankiderekin (Emory eta Carter) kafea hartzera irten naiz; biak ere nire adinekoak dira, eta ondo moldatuko garela uste dut!

Beno, utzi egin behar zaitut, badakizu gaur noala txakurtegira katutxoren bat topatzera.

Asko maite zaituen, Gaia.

2017ko abuztuaren 25a, ostirala

Kaixo, Helen:

Esan bezala txakurtegira joan nintzen eta nire asmoa katutxo bat adoptatzea bazen ere, txakurtxo batek konkistatu zuen nire bihotza... Beraz, txakurtxo bat daukat orain; nork esango zukeen... *Monday* izena jarri diot, ingelesa sentitzeko-edo, ez dakit. Ez dakizu zein polita den...

Lanari dagokionez, ikaragarri aste polita joan da. Gaztetxoek ikaragarri ondo hartu naute eta lankideekin ezin nintekeen hobeto egon! Ingelesari dagokionez, bi urte ikasten pasatu arren (gehi aurretik ikasitako guztia), Ingalaterrara lehenengoz datorren hamalau urteko nerabea sentitzen naiz! Ene..., zenbat gelditzen zaidan ikasteko!

Asteartean, jada moskeatuta, Anderri idatzi nion Whatsappetik. Sinetsi dezakezu oraindik ez didala erantzun? Ez dakit zer gertatzen zaion mutil horri, baina ez dut onartuko nirekin horrela jolasean ibiltzea. Kontatuko dizkizut aurrerapenak, baldin badauzkat.

Orain, banoa. Emory etxera dator afaltzera eta erosketa batzuk egitera irten behar dut. Laster arte!

Beti-beti, Gaia.

2017ko abuztuaren 29a, asteartea

Helen!!!

Badakizu nork idatzi zidan atzo gauean? Ajam... Anderrek! Eta beno, bat gora bestea behera, ordu txikiak arte aritu ginen hizketan... Gaur ez dakizu iratzargailuak zer nolako mina egin didan jo duenean! Baina merezi izan du. Eta bai, badakit haserretu egingo zarela, badakit haserre nengoela adierazi eta ez niola gehiago erantzun behar, baina Ander da! Helen... Badakizu nire ahulgunea dela! Zazpi urte daramatzat horrela... Eta bitxia badirudi ere, badakizu zeren falta sumatzen dudan gehien? Haren usainarena. Bai, haren besarkadena baino gehiago! Eta bada esatea... Asteburuan *skype* bat egiteko gelditu gara, beraz,

kontatuko dizut, ea zer esaten didan. Noizean behin hara agertu eta besarkatzerik banu... haren usaina nire arropan itsatsita gera dadin...

Beno, baina nire bizitza ez da Ander soilik. Ostiral honetan Carter, Emory, Jenny (beste lankide bat) eta ni gauean kopa pare bat hartzera irtengo gara; baina badakizu ingelesak nolakoak diren, beraz, ez dut uste oso berandu etxeratuko naizenik. Horrez gain, larunbat goizean Emory eta biok nire etxetik gertu dagoen parke batera joango gara, berak akordeoia jotzen baitu. Ea zerbait irteten den nire gitarraren laguntzaz!

Banoa, Helen, ama deika ari zait (hirugarren goz) eta oraindik ez diot telefonoa hartu.

Beti-beti, Gaia.

2017ko irailaren 3a, igandea

Helen, a zer bi egun!

Ostiralean kanpoan afaldu genuen, jatetxe begano batean. Ikaragarri goxoa zegoen... Probatuko bazenu zuri ere ikaragarri gustatuko zitzaizukeen! Gainera, Colchester izateko, ez zitzaidan batere garestia iruditu. Afalostean

zentro aldeko pub batera joan ginen. Pare bat kopa, dantza pixka bat. Barre pila bat egin genuen... Esan bezala, ordea, goiz etxeratu ginen; hamabietarako-edo.

Atzo goizean Emoryk parke zoragarri batera eraman ninduen. Eta zoragarri diodanean, benetan ari naiz. Egunen batean ezkontzen banaiz, bertan aterako ditut argazkiak. Pare bat ordur aritu ginen gitarra eta akordeoia jotzen eta abesten... Etxera joan, bazkaldu, eta hiruretan Anderrekin geldituta nengoen, *hango* lauretan. Hiru ordur hizketan. Ez dut sekula hain *skype* luzerik egin; eta begira gu bionak ere luzeak izan ohi zirela! Aspaldi ez bezala negar egin genuen. Uste dut inoiz ez diodala egia guztia kontatu eta beno... unea sortu zitzaidan eta hustu egin nintzen. Ez zuen niregandik hura espero eta harritu egin zen; onerako, uste dut. Berak ere negar egin zuen, aspaldi zen ez nuela hain bilutsik ikusten, hain bera. Aurrez aurre hitz egin behar genuela erabaki genuen; zergatik ez genuen hau guztia ni etorri aurretik egin? Ergela naiz... Urriko zuzian etorriko da niri bisita egitera, eta nahiz eta hemen jai ez izan, arratsaldeak libre izaten ditudanez... Orain egunero hitz egiten dugu Whatsappetik eta gogorragoa egiten zait, ez dakit, errealagoa sentitzen dut gurea, eta distantzia ere erreala denez...

Gaia aldatuz. Astearte honetan txangoa egingo dugu Londresera. Iritsi nintzenetik ez naiz bertan izan, beraz...

ez dakit nor dagoen gogotsuago, ikasleak ala ni. Kontatuko dizut!

Beti-beti, Gaia.

2017ko irailaren 8a, ostirala

Helen:

Egunetik egunera gehiago maitemintzen ari naiz Colchesterrez eta inguruaz. Izugarrizko eguraldia egiten ari da oraindik ere, haize epela... Asteartean Londresen izugarri disfrutatu nuen gazteekin. Bi lankide eta ni joan ginen 16 urtekoekin, eta hainbat museo bisitatu ostean, bazkaltzeko elkartu ginen hiriaren erdigunean. Zoragarria guztia! Nahiz eta hiri handiek beldurra eman, honek xarma berezia duela sentitzen dut; kaleko giroa, arraza ezberdinetako jendea... ez dakit.

Eta badakizu? Elkarte gastronomiko begano bat topatu dut nirearen alboko auzoan, eta ostiraletan tailerrak eta afariak egiten dituzte; beraz, banoa berehala. Gaur da lehenengo eguna. Kontatuko dizut!

Anderri dagokionez, aste honetan ez dugu gehiegi hitz egin, nik eskatuta. Ulertzen ninduela esan zidan, baina gogorra egingo zitzaiola. Niretzat, ordea, gogorragoa da hitz

egitea... Gogorragoa hitz egitea inoiz definitu gabeko erlazio bat bost urtez mantendu eta gero, kilometroek banatzen gaituztelako. Ez delako goizean berarekin hitz egin eta gauean bere alboan lo egitea...

Beno, berandutu aurretik banoa!

Beti-beti, Gaia.

2017ko irailaren 16a, larunbata

Bi ostiral daramatzat elkarte gastronomikoan eta zoratzen nago! Astero errezeta berriak probatzeaz gain, eztabaidak egiten ditugu afalostean... Izugarri polita izaten da. Lagun on bihurtuko den neska bat ere ezagutu dut; Lexa. Lagun on bihurtuko dela diot, hasiera-hasieratik *feeling* ikaragarria izan dugulako. Jaiotzetik da begana, gurasoak ere hala zirelako, eta oso-oso neska interesgarria da. Izugarri daki, bai beganismoaren gainean, eta baita izugarri interesatzen zaizkidan beste gai batzuen gainean ere! Elkarrizketa oso interesgarriak izango ditugulakoan nago, bihotzetik bihotzera.

Anderri dagokionez, aste honetan bizpahiru aldiz idatzi dit, nigatik kezkatuta. Triste sumatzen dut, idazteko moduagatik; berak ez baitit horrelakorik aitortu

(ezta aitortuko ere). Baina ez dakit, neska. Etorri nintzenetik ez dit idatzi, nik idatzi behar... eta orain gogorra egiten zaiola. Ez dut inoiz ulertuko!

Asteburu hau lasai antzera joango da; gaur etxe aldetik, eta bihar Lexak norabait eramango nau, herrixka bat erakutsi nahi didala esan zidan atzo. Kontatuko dizut!

Beti-beti, Gaia.

2017ko irailaren 21a, osteguna

Hemen lan egitea plazer hutsa da, Helen! Batzuetan, ahaztu egiten zait nor naizen, nondik natorren. Batzuetan iruditzen zait betidanik lan egin dudala hemen, betidanik bizitu naizela. Aspaldian ez nintzen hain eroso sentitzen nire buruarekin, hain eroso besteekin. Eta bitxia da, hain jende “ezezagunarekin” hain eroso sentitzea.

Lexak eraman ninduen herrixka... Buf... Honekin ere maitemindu egin nintzen. Hemengo txoko bakoitzak xarma berezia du, Helen! Ikusterik bazenu... Xarma berezia du; usain berezia, argi berezia... Betidanik pentsatu izan dut ingelesarekin erlazio berezi bat dudala, baina hau ikusi ostean... Hain *ni* sentiarazten naute lur hauek...

Anderrekin hitz egin ez dudala badira bost egun. Ez nago eroso. Ea noiz datorren eta gauzak argitzen ditugun... Ohartzera hemen izango da eta horrek izugarri beldurtzen nau. Badakizu beti ibili garela baiezkoaren eta ezezkoaren artean, ezer seriorik izan gabe, baina beti zerbait izanda. Bada, orain, beldur naiz. Beldurra diot gerta daitekeenari, baita gertatuko ez denari ere.

Gitarrari dagokionez, klaseetara apuntatu naiz, *Creativity and Autonomy* izeneko akademia bat da eta batez ere, irudimena eta sormena lantzen dira. Oso gustura nabil eta erabiltzen dituzten teknikak Euskal Herrira eraman behar nituzkeela sentitzen dut. Badakizu, hainbeste ilusionatzen nauten beste proiektuetako bat. Denboraren asuntoa beste baterako utziko dugu, badaezpada ere!

Banoa, Helen. Lexa eta Emoryrekin tea hartzera noa!
Beti-beti, Gaia.

2017ko irailaren 30a, larunbata

Kaixo, Helen, eta barkatu tardantza!

Nolako astea! Lankideekin te (eta bilera) ugari, Lexarekin afari eta elkarrizketa pila... Oso luzea izan da, baina ikaragarri disfrutatu dut.

Ez dizut *Monday*ri buruz asko hitz egin, baina aurreko asteburuan mendira eraman nuen eta badirudi gustatu egin zaiola! Beraz, egunen batean Euskal Herrira itzultzen banaiz (eta lehenago edo geroago gertatuko dela sentitzen dut), asko gustatuko zaiolakoan nago.

Anderrek atzo idatzi zidan, bileteak hartuak dituela eta urriaren hamabian eguerdiko 12etan iristen dela Colchestertera. Ni hiruretan ateratzen naiz lanetik, beraz, itxaron egin beharko du. Bi aste falta dira oraindik. Baina bi aste segituan igaroko dira eta... Buf! Beldur naiz, Helen! Badirudi Anderrek nigan dudan ziurtasun guztia deuseztatzeko gaitasuna duela; ez dakit nola azaldu...

Barkatu hainbeste gauza hain testu laburrean kontatzea, presaka nabil. Gaur, elkarte gastronomikoan egun berezia dugu-eta. Kontatuko dizut!

Beti-beti, Gaia.

PD: Datorren astean nire amaren urtebetetzea da eta ezin izango diot besarkadarik eman. Zuk ematerik bazenu...

2017ko urriaren 7a, larunbata

Barkatu, Helen:

Beste astebete joan zait hegan eta ez dizut batere idatzi. Aurreko larunbateko elkarte gastronomikoaren eguna

pasada bat izan zen. Negurako krema eta gisatu beganoak egiten ikasi genuen. Hemen tempeh-a ikaragarri erabiltzen dute eta, batzuetan oso ona egon arren nire gogokoena ez bada ere, esan beharra daukat ikaragarri gisatu goxoa egin genuela; tempeh-a, kalabazina, azenarioa, tipula, olo esnea eta apioa... Ñam!

Aste honetan, eskolan, proposamen bat egin didate eta onartu egin dut. Beraz, 16 urtekoei egunean ordu eta erdi emateaz gain, hamabi eta hamahiru urtekoen klaseetara joaten hasi naiz, asteen bi orduz klaseko (denetara hamar ordu gehiago, beraz), *Cultures around the World* delako ikasgaian euskal kultura sartu nahi izan dutelako. Proiektu honetan hilabetez soilik lan egin behar badut ere, oso ilusionatuta nago!

Lexak egunean baino egunean gehiago harritzen nau eta buruan duen proiektu feminista bat aurrera eramateko laguntza eskatu dit. Ezin izan diot ezezkorik eman... Baina zin egin dit ez digula denbora gehiegirik kenduko, momentuz behintzat!

Helen, Ander ostegunean dator eta jadanik urduri nago. Datorren asteen oso lanpetuta ibiliko naiz, baina igandean hutsik gabe idatziko dizut.

Banoa, Monday zain daukat-eta.

Beti-beti, Gaia.